

2022ko MARTXOAREN 23ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2022-03-23.
Hasiera ordua: 19:50.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Estibaliz Pinacho Olaciregui
José Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
Patxi Castillo Graciarena

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Germán Castillo Lazcanotegui
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2022/02/16). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

2. NAHUEL MAXIMILIANO IBARBURI LOMPRES JAUNAK UDAL HONETAKO ZINEGOTZI KARGUARI EGINDAKO UKOA.

Ikusirik:

- Udal honetako zinegotzi karguari uko egiteko idazkia, Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre jaunak sinatua eta Sarrera Erregistroan aurkeztua 2022ko otsailaren 22an, 506 zenbakiarekin.

- Ibarburi jauna 2019ko ekainaren 15ean jabetu zela zinegotzi karguaz, 2019ko maiatzaren 26an egindako toki hauteskundeen ondoren.

- Herrirako hautagai-zerrendan kargu hutsa betetzera deitutako 8 pertsonak idatziz aurkeztu dutela hori betetzeko proposatuak izateari uko egitea.

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 9.4 artikuluan eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan ezarritakoa betez,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Udaleko zinegotzi karguari uko egiteko Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre jaunak aurkeztutako idatziaren berri izatea.

2. Hauteskunde Batzorde Zentralari bidaltzea erabaki honen ziurtagiria, Ibarburi jaunak uko egiteko idatziaren kopiarekin batera, bai eta hutsik dagoen kargua betetzera hautagai-zerrendan deitutako 8 pertsonak aurkeztutako idazkien kopiarekin ere.

3. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B3/2022 zenbakidunetik B6/2022 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 24/2022 zenbakiko Ebazpenetik (2022/02/14) 67/2022 zenbakiko Ebazpenera arte (2022/03/17).

4. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.